

## KULTURA SAILA

5869

AGINDUA, 2008ko urriaren 1ekoa, Kultura sailburuarena, laguntzen deialdia egiten duena Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko sektorea nazioarteko ikus-entzunezko merkatuetan sustatu eta hedatzeko (Niniak).

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuan eta Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuan dauden xedapenen arabera, Kultura Sailari dagozkio, besteak beste, ikus-entzunezkoen arloan garatzen diren arte- eta kultura-jarduerak sustatu, sendotu edota hedatzeko eskumenak.

Hori dela eta, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari jardun-arlo gisa adierazi zaizkion eskumenen barruan, interesgarritzat jo dugu Euskadiko ikus-entzunezko sektorea osatzen duten ikus-entzunezko obrak eta enpresak sustatzeko ekintzak bultzatzeko zenbait babesneurri erabakitzea.

Agindu honen bidez, Niniak izeneko laguntzak arautzen dira, alegia, nazioarteko ikus-entzunezkoen merkatuan Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizle eta enpresa banatzaile independenteen presentzia babesteko helburua duten laguntzak.

Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
ARAU OROKORRAK

**1. artikulua.**– Xedea.

1.– Niniak programaren xedea da EAEko ekoizle eta enpresa banatzaile independenteen partaidetza babestea, 2008ko ekitaldian zehar, nazioarteko ikus-entzunezko merkatuetan, bai eta ikus-entzunezkoen euskal sektorea kanpoan hedatzeko hainbat jarduera sustatzea ere, jarraian adieraziko diren formulen arabera:

a) Babesa emango zaie nazioarte mailako ikus-entzunezko zenbait merkatuetan parte hartzen duten enpresei; bidaia-poltsak emango zaizkie, II. kapituluan ezarritako terminoen arabera.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

5869

ORDEN de 1 de octubre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan las medidas de apoyo a la participación de las empresas que integran el sector audiovisual de la Comunidad Autónoma del País Vasco en eventos audiovisuales de carácter internacional (Niniak).

De conformidad con las disposiciones contenidas en el Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, así como en el Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, corresponden al mismo, entre otras, las atribuciones relativas al impulso, consolidación y/o difusión de las actividades artísticas y culturales que se desarrollen en el área audiovisual.

En tal sentido, dentro del ámbito de facultades que a la Dirección de Promoción de la Cultura le vienen señaladas como áreas de actuación, se ha considerado de interés seguir con las medidas de apoyo dirigidas a impulsar acciones de promoción de las obras audiovisuales y de las empresas que integran el sector audiovisual de Euskadi.

A través de esta Orden se regulan las ayudas conocidas con la denominación genérica de «Niniak», que tienen como finalidad apoyar la presencia de las productoras y distribuidoras independientes de la Comunidad Autónoma del País Vasco en eventos audiovisuales de carácter internacional.

En su virtud,

DISPONGO:

CAPÍTULO I  
NORMAS GENERALES

**Artículo 1.**– Objeto.

1.– Es objeto del programa Niniak apoyar la participación de productoras y distribuidoras independientes de la CAPV, durante el ejercicio 2008, en eventos audiovisuales de carácter internacional, así como impulsar actividades diversas para la difusión exterior del sector audiovisual vasco conforme a las fórmulas que a continuación se detallan:

a) Se apoyará a las empresas que participen en determinados eventos audiovisuales de carácter internacional mediante la concesión de ayudas en concepto de bolsas de viaje en los términos que se señalan en el Capítulo II.

b) Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritzak, nazioarte mailako ikus-entzunezko zenbait merkatutan, standak antolatuko ditu «Niniak» lelopean, bertan parte hartzen duten euskal ekoizle eta enpresa banatzaileak babesteko asmoz, II. kapituluaren ezarritako terminoen arabera.

2.– Horretarako, ekoizle eta enpresa banatzaile independentez joko da jabetza, finantza-partaidetza edo eraentzen duten araei dagokienez, irrati-telebista erakundeen eraginik ez duen pertsona fisiko zein juridikoa.

3.– Niniak programan parte hartzeko eskabidea egiteak berarekin dakar partaideek onartu eta baimentzen dutela Administrazioak agindu honetan agertzen diren jarduerak garatu eta sustatzea. Halaber, Administrazioak aukera izango du egingo diren promozio-euskarrietan, aurkezten diren ikus-entzunezkoen proiektu/lanen zati bat edo guztia eransteko.

Horretarako, pertsona eskatzaileak izango du ardua xede hori betetzeko behar diren baimen guztiak lortzeko, aurkeztutako proiektu/lanen zuzeneko egileen gainetik.

## **2. artikulua.**– Onuradunak.

1.– Honako hauek parte hartu ahal izango dute Niniak programan:

a) Ekoizpen enpresak, pertsona fisiko zein juridiko pribatuak, independenteak (ekimena izan eta ikus-entzunezko obra egiteko erantzukizuna hartzen badute eta zuzenean nahiz zeharka telebistako zerbitzuak kudeatzen dituen erakunde batek beren partaidetza gehiena ez badu) deialdi hau argitaratzen den egunean bizilekua edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan badute eta jarduera ekonomikoaren zergaren ikus-entzunezko ekoizpenari dagokion epigrafean alta emanda badaude.

b) Enpresa banatzaileak, pertsona fisiko zein juridiko pribatuak, independenteak (ikus-entzunezko obrak merkaturatzen badituzte eta zuzenean nahiz zeharka telebistako zerbitzuak kudeatzen dituen erakunde batek beren partaidetza gehiena ez badu) deialdi hau argitaratzen den egunean bizilekua edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan badute eta jarduera ekonomikoaren zergaren ikus-entzunezko banaketari dagokion epigrafean alta emanda badaude.

2.– Nolanahi ere, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.4 artikulua ezarritakoari jarraituz, onuradunei diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, aurreko deialdiaren bati dagokion edozein prozedurak, zigortzeko nahiz dirua itzultzeko, amaituta egon beharko du; horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusiak edo bere organismo autonomiadunek

b) La Dirección de Promoción de la Cultura organizará stands bajo el lema «Niniak» en determinados eventos audiovisuales de carácter internacional con el fin de apoyar a las productoras y distribuidoras vascas que participen en el evento en los términos del Capítulo II.

2.– A tal efecto se entenderá por productor y por distribuidor independiente, aquella persona física o jurídica que no sea objeto de influencia dominante por parte de las entidades de radiodifusión televisiva por razones de propiedad, participación financiera o de las normas que le rigen.

3.– La solicitud para tomar parte en el Programa Niniak supone la aceptación y autorización de los participantes para que la Administración desarrolle y promueva las actividades que se contemplan en la presente, y pueda incorporar en los soportes promocionales que se confeccionen la parte o el todo de los proyectos/obras audiovisuales que se presenten.

A tal efecto la persona solicitante será la responsable de recabar las autorizaciones que en orden al cumplimiento de ese objetivo sean necesarios respecto de los autores materiales de los proyectos/obras presentadas.

## **Artículo 2.**– Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las ayudas del programa Niniak:

a) Las empresas de producción, personas físicas o jurídicas privadas, independientes (que tengan iniciativa y asuman la responsabilidad en la realización de una obra audiovisual y no estén participadas de forma mayoritaria por una entidad que gestione directa o indirectamente servicios de televisión) que a la fecha de publicación de esta convocatoria tengan domicilio o sede social en la Comunidad Autónoma de Euskadi y estén dados de alta en el epígrafe correspondiente a la producción audiovisual del impuesto de actividades económicas.

b) Las empresas de distribución, personas físicas o jurídicas privadas, independientes (que comercialicen obras audiovisuales y que no estén participadas de forma mayoritaria por una entidad que gestione directa o indirectamente servicios de televisión) que a la fecha de publicación de esta convocatoria tengan domicilio o sede social en la Comunidad Autónoma de Euskadi y estén dados de alta en el epígrafe correspondiente a la distribución audiovisual del impuesto de actividades económicas.

2.– En todo caso, de acuerdo con el artículo 50.4 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, la concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza

emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzen eremuan hasi badira eta artean tramitatzen badabilta.

3.– Ezingo dute agindu honetako diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik dutenek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik dutenek ere, sexu-be-reizkeria dela-eta gertatu direnak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutako-aren indarrez.

### **3. artikulua.**– Eskabideak aurkezteko modua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau EHAA-n argitaratzen den egunaren bi-haramunetik aurrera.

2.– Eskabide horiek Kultura, Gazteria eta Kirol sail-buruordeari bidali beharko zaizkio; horiek, deialdiaren eranskinetan eskatzen diren agiriekin batera, Lurralde Historikoetako Kulturaren Lurralde Zerbitzuetan aurkeztu beharko dira, zuzenean edo Herri Administrazio-en Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako edozein bitarteko erabilita.

### **4. artikulua.**– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak burutzea.

**5. artikulua.**– Aurkeztutako eskabideak akatsak zuzentzea.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak, aurkeztutako eskabidean akats edo hutsuneren bat dagoela ikusten badu, hutsunea zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak eransteke eskatuko dio interesdunari; horretarako hamar eguneko epea izango du. Halaber, adierazi egingo dio hori egiten ez badu, bere eskabideari uko egiten diola ulertuko dela, horretarako emandako ebazpenaren ondoren.

### **6. artikulua.**– Bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste erakunde publiko zein pribatu batek emandakoekin, horiekin gehiegizko finantziazioa sortzen ez bada. Horrelakorik badago, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa gehiegizko mugara murriztuko da.

### **7. artikulua.**– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak emateko ebazpena Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak emango du; horretarako, sei hilabeteko epea izango du, deialdia argitaratzen denetik aurrera zenbatuta.

concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– Supondrá impedimento para acceder a las ayudas previstas en esta convocatoria estar sancionado administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o incurso en prohibición legal que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

### **Artículo 3.**– Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes de ayuda al amparo de la presente convocatoria será de un mes, a partir del día siguiente a la fecha de publicación de la misma.

2.– Dichas solicitudes habrán de dirigirse al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, y se presentarán, junto con la documentación exigida en los anexos de la convocatoria, en los servicios territoriales de Cultura de cada uno de los Territorios Históricos, bien directamente bien por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

### **Artículo 4.**– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

**Artículo 5.**– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Promoción de la Cultura advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto u omisión, requerirá al interesado para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución emitida al efecto.

### **Artículo 6.**– Compatibilidad.

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra entidad pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención concedida hasta el límite máximo que corresponda.

### **Artículo 7.**– Resolución.

1.– La Resolución de concesión de las ayudas previstas en esta convocatoria será dictada, por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes en el plazo de seis meses a contar desde la publicación de la convocatoria.

2.– Ebazpen hori interesdunei jakinaraziko zaie eta, horretaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jendeak jakin dezan.

3.– Ebazpena emateko epea igarotakoan, interesdunak ez badu jakinarazpenik jaso, eskabidea ezetsizat jo ahal izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren ondorioetarako.

**8. artikulua.**– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartu beharko dute. Hori dela eta, laguntza emango zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean pertsona/erakunde onuradunek ez badiote beren-beregi uko egiten, hori onartzen dutela ulertuko da.

b) Laguntza, eman izan den helburu zehatzerako erabili beharko dute.

c) Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eskatzen dieten informazio guztia eskuratu beharko diete, laguntzen helburua kontrolatzeko funtzioak bete ahal izan ditzaten.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako laguntzak eta diru-laguntzak jasotzeagatik ezarrita dauden gainerako betebeharrak izan dira.

**9. artikulua.**– Ez betetzeak.

1.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 53.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, honako hauek ez betetzeak izango dira:

a) Jasotako laguntzen zati bat edo guztia agindu honetan aurreikusitako jarduerak ez diren beste batzuk egiteko aplikatzea.

b) Agindu honetan edo laguntzak emateko egintzan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

c) Hala badagokio, diru-laguntzaren likidazio ebazpenean adierazten den zenbatekoa horretarako ezarritako epean ez itzultzea.

d) Beste edozein xedapenek izaera orokorraz ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

2.– Honako ustezkoren bat dagoela egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta legez ezarritako interesak itzuli beharko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari; hori guztia, aurretiaz azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta

2.– Dicha Resolución se notificará a los interesados. Independientemente de esta notificación, el contenido de esta resolución se hará público en el Boletín Oficial del País Vasco a los efectos de su general conocimiento.

3.– Si una vez transcurrido el plazo de resolución la misma no hubiera sido notificada al interesado, la solicitud correspondiente podrá entenderse desestimada, a los efectos de lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 8.**– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las ayudas reguladas en la presente Orden deberán cumplir las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la notificación de concesión de la ayuda las personas/entidades beneficiarias no renuncian expresamente a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

d) Cuantas otras obligaciones y deberes estén establecidas por la percepción de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

**Artículo 9.**– Incumplimientos.

1.– Conforme al artículo 53.1 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La aplicación total o parcial de las ayudas percibidas para actividades distintas de las previstas en la presente Orden.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o, en su caso, de las que se establezcan en el acto de concesión.

c) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la Resolución de Liquidación de la subvención, en el plazo para ello establecido.

d) Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

2.– La constatación de la existencia de alguno de estos supuestos determinará, en los términos y previo cumplimiento de lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, la obligación de reintegrar a la Te-

abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako betez egingo da.

II. KAPITULUA  
NAZIOARTEKO IKUS-ENTZUNEZKO  
MERKATUETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK

**10. artikulua.**– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabideak I. eranskinen ereduaren arabera egingo dira, 3.1 artikuluan ezarritako epearen barruan; halaber, laguntza eskatzen den merkatu edo jaialdian garatuko diren jardueren buruzko memoria erantsiko da.

**11. artikulua.**– Betekizunak.

Gutxienez bi urteko ibilbide profesional egonkorra; hori laguntza eskabideari buruzko eranskinean eskatzen diren agirien bitartez kreditatuko da. Enpresa berria bada, zenbaketa hori enpresa eratzen duen zuzendaritza-taldeko kideei buruzkoa izango da.

**12. artikulua.**– Bidaia-poltsako laguntzen zenbatekoa eta horiek zehazteko prozedura.

1.– Agindu honen indarrez enpresei emango zaizkien bidaia-poltsetarako erabiliko den gehieneko zenbatekoa hogeita sei mila eta bostehun (26.500,00) eurokoa izango da; Bidaia-poltsok jarraian zerrendatuko diren merkaturen batean parte hartuko duten enpresei emango zaizkie.

2.– Laguntza hauen zenbatekoak joan-etorrietarako, ostatu hartzeko eta akreditazioak lortzeko gastuak ordaintzeko erabiliko dira, enpresa onuradunak jarraian adierazten diren merkatu edo jaialdietan parte hartzearen ondorioz sortzen badira. Hala ere, ezin izango da mila hirurehun eta berrogeita hamar (1.350,00) euroko gehieneko muga gainditu, edo laurehun eta berrogeita hamar (450,00) eurokoa, bertan Kultura Sailak Niniak standak antolatzen badu.

– Film-ekoizleen Nazioarteko Federazioak (FIAPF) «A» moduan sailkatutako beste herrialdeetako nazioarteko zinemaldiak: Berlin, Kairo, Cannes, Karlovy Vary, Locarno, Mosku, Mar de Plata, Xangai, Tokio, Venezia.

- NATPE (AEB).
- AFM (AEB).
- MIPTV (Frantzia).
- MIFA (Frantzia).
- Sunny Side of the Doc (Frantzia).
- MIPCOM (Frantzia).
- MIFED (Italia).
- IDFA (Herbehereak).

sorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

CAPÍTULO II  
AYUDAS A LA PARTICIPACIÓN EN EVENTOS  
AUDIOVISUALES DE CARÁCTER INTERNACIONAL

**Artículo 10.**– Solicitudes y documentación a presentar.

Las solicitudes se formalizarán dentro del plazo establecido en el artículo 3.1. conforme al modelo del anexo I y se acompañará de una memoria sobre las actividades que desarrollarán en el mercado o festival para el que se solicita la ayuda.

**Artículo 11.**– Requisitos.

Trayectoria profesional estable de, al menos, dos años que se acreditará mediante la documentación exigida en el anexo correspondiente a la solicitud de ayuda. Si la empresa fuera de nueva creación, este cómputo se aplicará a la trayectoria profesional de los miembros directivos de la misma.

**Artículo 12.**– Importe de las ayudas en concepto de bolsas de viaje y procedimiento para su concreta determinación.

1.– El importe global máximo destinado a las bolsas de viaje que se concedan al amparo de esta Orden a las empresas que participen en alguno de los eventos que se relacionan a continuación es de veintiséis mil quinientos (26.500,00) euros.

2.– El importe de estas ayudas se destinarán a cubrir los gastos de desplazamiento, alojamiento y acreditación ocasionados por la participación de la empresa beneficiaria en alguno de los siguientes mercados o festivales, sin rebasar el máximo de mil trescientos cincuenta (1.350,00) euros o de cuatrocientos cincuenta (450,00) euros si el Departamento de Cultura organiza un stand «Niniak» en el mismo:

– Festivales Internacionales de otros países clasificados como «A» por la Federación Internacional de Productores de Películas (FIAPF): Berlín, El Cairo, Cannes, Karlovy Vary, Locarno, Moscú, Mar del Plata, Shanghai, Tokyo, Venecia.

- NATPE (EEUU).
- AFM (EEUU).
- MIPTV (Francia).
- MIFA (Francia).
- Sunny Side of the Doc (Francia).
- MIPCOM (Francia).
- MIFED (Italia).
- IDFA (Holanda).

- Cinema Jove Nazioarteko Zinemaldia (Espainia).
  - Clermont-Ferrand-eko Film Laburren Nazioarteko Zinemaldia.
  - Siggraph-eko 3D animazioko Nazioarteko Zinemaldia.
- 3.– Enpresa bakoitzari, gehienez, bi merkatu babestuko zaizkio. Zenbaketa horretan, euskal enpresek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren standetan parte hartzen duten merkatuak ere hartuko dira kontuan.

4.– Ebazpena ematen den unean esleituko zaizkie eskatzaileei kopuru zehatzak, betiere horretarako eskabidea epe barruan egin eta laguntzak lortzeko betekizunak betetzen badituzte. Eskatzaileei 2. atalean agertzen den gehienezko kopurua esleituko zaie. Hala ere, gehieneko zuzkidura ez bada nahikoa eskatzaile guztien eskabideei erantzuteko, diru-kopurua onuradun guztien artean hainbanatuko da.

**13. artikulua.**– Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak antolatutako Niniak standen babesak.

12.2 artikuluan zerrendatutako ikus-entzunezko merkatuen batean, bertan parte hartzen duten enpresak babesteko, Kultura Sailak «Niniak» lelopeko stand antolatzea erabakitzen badu, horrek honakoak ekarriko ditu berarekin:

- 1.– Bertan parte hartzen duten enpresek eskubidea izango dute, gutxienez, merkatuan parte hartzeko akreditazio bat izateko.
- 2.– Enpresek honako hauek izango dituzte standetan: bilera-gunea, laguntzaile bat, eta telebista eta bideoa, bileretan beren obrak edota proiektuak ikuskatu ahal izateko.
- 3.– Baterako promozio-materiala sortuko da eta, standean, promozio-jarduerak egingo dira.

**14. artikulua.**– Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan izaera orokorraz ezarritako betebeharez gain, laguntza hauek jasoko dituzten ekoizle eta banatzaileek argi adierazi beharko dute Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Niniak programak babesten dituela; hori, diruz lagundutako jarduera dela eta argitaratzen duten katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako irudi- zein soinu-materialen aletan egin beharko dute, laguntza ematen duen ebazpena jasotzen duten egunetik aurrera.

**15. artikulua.**– Diru-laguntza ordaintzea.

Bidaia-poltsen kontzepturako emandako diru-laguntza ordaintzeko, ordaintzeta bakarria egingo da, egindako jarduera burutu eta behar bezala justifikatu ondoren, 16. artikuluan azaltzen diren terminoetan.

– Festival Internacional de Cine Cinema Jove (España).

– Festival Internacional de Cortometrajes de Clermont-Ferrand (Francia).

– Festival Internacional de animación 3D del Siggraph.

3.– No se apoyarán más de dos eventos por empresa. En este cómputo se incluyen los mercados en los que las empresas vascas participen en el stand del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

4.– En el momento de emisión de la resolución se asignarán las cantidades concretas a los solicitantes, que habiendo formulado la correspondiente solicitud de ayuda en plazo reúnan los requisitos para acceder a las ayudas, se efectuará asignando la cantidad máxima que se contempla en el apartado 2. En el supuesto de que la dotación máxima no alcanzase para atender a todos los solicitantes, la cantidad objeto de reparto se prorrateará entre todos los beneficiarios.

**Artículo 13.**– Apoyo de los stands «Niniak» del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Si en alguno de los eventos audiovisuales relacionados en el artículo 12.2 el Departamento de Cultura, para apoyar a las empresas que participen en el mismo, decide organizar un stand bajo el lema «Niniak», ello supondrá que:

- 1.– Las empresas participantes tendrán derecho a una acreditación para participar en el evento, como mínimo.
- 2.– Las empresas dispondrán en los stands de zonas de reuniones, del apoyo de una azafata, así como de TV y vídeo para visionar sus obras y/o proyectos en las reuniones.
- 3.– Se creará material promocional conjunto y se organizarán actividades de promoción en el stand.

**Artículo 14.**– Obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.

Además de las obligaciones establecidas con carácter general en esta convocatoria, los productores y distribuidores beneficiarios de estas ayudas deberán establecer de forma clara en los ejemplares de los catálogos, programas, carteles anunciadores, fotografías y demás material gráfico o sonoro que publiquen, con motivo de la actividad subvencionada, a partir de la fecha de recepción de la Resolución concedente, expresa mención del patrocinio del programa Niniak del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

**Artículo 15.**– Pago de las ayudas.

El abono de las ayudas en concepto de bolsas de viaje otorgadas se realizará mediante un único pago y tras la ejecución y debida justificación de la actividad realizada en los términos que se exponen en el artículo 16.

**16. artikulua.**– Diru-laguntza justifikatu eta likidatzea.

1.– Agindu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradunek honakoak aurkeztu beharko dituzte, diruz lagundutako jarduera amaitu eta hurrengo bi hilabeteko epean eta betiere 2008ko abenduaren 31 baino lehen:

a) Diruz lagundutako merkatuan garatutako jarduerak azaltzen dituen memoria, emandako laguntzaren balorazioa eta hurrengo urtean nazioarteko merkatuetara joateko plana.

b) Jatorrizko fakturak edo horien fotokopia konpulsatuak, merkatuan parte hartzearen ondorioz eragindako joan-etorrietarako, ostatu hartzeko eta akreditazioak lortzeko gastuak justifikatzeko.

c) Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Niniak programak babesten dituela beren-beregi adierazten duten eta diruz lagundutako jarduera dela-eta sortu diren katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako irudi- zein soinu-materialen aleak.

d) Dagozkien zergak ordaindu dituztela frogatzen duen ziurtagiria.

e) Xede bererako beste laguntza guztien zerrenda.

2.– Diru-laguntza justifikatzeko bidalitako agiriak aztertu ondoren, arrazoa edozein dela (gehiegizko finantziazioa egotea, edo eskatutako gastu-faktura guztiak ez ematea), Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak hasieran onartu zuen laguntza murriztu edo guztiz ezeztatu behar denean, bana-banako likidazio ebazpena emango da; horretarako bi hilabeteko epea egongo da, frogagiriak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatuta.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**– Laguntzetarako 12.1 artikuluan jarritako kopurua aldatu egin daiteke -diru-laguntzei buruzko ebazpena hartu aurretik, betiere- kontuan hartuta eskatu diren laguntza guztiak eta Kultura Sailak beste programa batzuen aurrekontuetan agortu gabe dituen baliabideak. Horrelakorik gertatuz gero, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak horren berri emango du ebazpen baten bidez.

**Bigarrena.**– Agindu honen bidez araututako laguntza-programa Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Erregelamenduan ezarritako de minimis arauaren mende dago (araudi hori Tratatuak 87. eta 88. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da eta 2006ko abenduaren 28ko 28ko L 379/5 Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Ondorioz, Kultura Sailak beharrezkoak diren mekanismoak jarriko ditu abian, bermatzeko enpresa jakin bati emandako laguntza osoa ez dela

**Artículo 16.**– Justificación y liquidación de la subvención.

1.– Los beneficiarios/as de las subvenciones establecidas en la presente Orden, deberán presentar, dentro de los dos meses siguientes al de finalización de la actividad subvencionada, y en todo caso con anterioridad al 31 de diciembre de 2008:

a) Memoria explicativa de las actividades desarrolladas en el evento subvencionado, valoración de la ayuda concedida, así como del plan de asistencia a eventos internacionales para el año siguiente.

b) Facturas originales o fotocopias compulsadas de las mismas, justificativas de los gastos de desplazamiento, alojamiento y acreditación ocasionados por su participación en el evento.

c) Ejemplares de los catálogos, programas, carteles anunciadores, fotografías y demás material gráfico o sonoro, generado a partir de la actividad subvencionada, donde conste expresamente la mención al patrocinio del programa Niniak del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

d) Documentación acreditativa de que el beneficiario se halla al corriente de sus obligaciones tributarias.

e) Relación de cualesquiera otras ayudas con destino al mismo objeto.

2.– Cuando analizada la documentación remitida a los efectos de justificación de la subvención proceda, por el motivo que fuera, caso de existencia de sobrefinanciación o no aportación del total de las facturas de gasto exigidas, la minoración o la anulación total de la ayuda inicialmente reconocida por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes se dictará, en el plazo de dos meses desde la finalización del plazo de presentación de justificantes, Resolución de Liquidación individualizada.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**– El importe global consignado en el artículo 12.1 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Cultura, y con carácter previo a la resolución de las mismas, debiendo efectuarse la correspondiente publicidad de esta circunstancia mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

**Segunda.**– El programa de subvenciones contemplado en esta Orden queda sujeto a la regla de minimis establecida en el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, publicado en el diario Oficial de la Unión Europea L 379/5 de 28 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado a las subvenciones de minimis, y por tanto, el Departamento de Cultura articulará los mecanismos necesarios para garantizar que la ayuda total de minimis concedida a una entidad beneficiaria de

izango 200.000,00 eurotik gorakoa edozein alditako hiru ekitaldi fisikaletan.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Agindu honen aurka aukerako beraztertzeko errekurtsua jar diezaiokete interesdunek Kultura sailburuari hilabeteko epe barruan, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Aretoan bi hilabeteko epe barruan, hau ere argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

**Bigarrena.**– Agindu hau EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 1a.

Kultura sailburua,  
MIREN AZKARATE VILLAR.

las subvenciones previstas por la presente Orden, no sea superior a 200.000,00 euros durante cualquier periodo de tres años fiscales.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– Contra la presente Orden podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir, asimismo, del día siguiente de su publicación.

**Segunda.**– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de octubre de 2008.

La Consejera de Cultura,  
MIREN AZKARATE VILLAR.

## I. ERANSKINA / ANEXO I

## NINIAK

NAZIOARTEKO IKUS-ENTZUNEZKO MERKATUETAN  
PARTE HARTZEKO LAGUNTZA ESKABIDEASOLICITUD DE AYUDA PARA PARTICIPAR EN  
EVENTOS AUDIOVISUALES DE CARÁCTER INTERNACIONAL

## PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA FÍSICA O JURÍDICA

Pertsona fisiko edo juridikoaren izena / Nombre de la persona física o jurídica: .....

Helbidea / Dirección: .....

PK / CP: ..... Herria/Localidad: .....

Tfno.: ..... Faxal/Fax: .....

E-maila/E-mail: .....

Web orrial/Página web: .....

## BANKETXE EDO AURREZKI ENTITATEAREN DATUAK / DATOS BANCARIOS O DE LA ENTIDAD DE AHORRO

Banketxea edo Aurrezki Entitatea / Banco o Entidad Bancaria:

Agentzia / Agencia:

K.D./C.D.:

Kontu-zk./N.º cuenta:

Jabea/Titular: .....

## ESKATZEN DUEN PERTSONA/ERAKUNDEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

1.– Pertsona edo erakunde horren agiria.

A) Pertsona fisikoak badira:

NANaren fotokopia.

B) Pertsona juridikoak badira:

Pertsona juridikoaren eraketa-eskritura eta estatutuak, baita erakundea dagozkion Erregistro Publikoetan izen-ematearen ziurtagiria ere.

Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia, eta ordezkaria dela frogatzen duen boterearen frogia.

C) Bai pertsona fisikoek bai juridikoek aurkeztu beharreko agiria:

Aurreko bi urteetan eta indarrean dagoen urtean jasotako minimis motako edozein laguntzari buruzko deklarazioa.

Pertsona eskatzaileak sinatutako zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakundeak ez duela laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere, sexubereizkeria dela-eta gertatu direnak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren indarrez.

Dagozkien zergak ordaindu dituztela frogatzen duen ziurtagiria (1).

## DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LA PERSONA/ENTIDAD SOLICITANTE:

1.– Documentación relativa a la persona/entidad.

A) Cuando se trate de personas físicas:

Fotocopia del DNI.

B) Cuando se trate de personas jurídicas:

Escritura de constitución y estatutos de la entidad así como acreditación de su inscripción en los Registros Públicos correspondientes.

Fotocopia del DNI del representante legal, así como acreditación del poder de representación que ejerza.

C) Tanto para personas físicas como jurídicas:

Declaración sobre cualquier otra ayuda de «minimis» recibida durante los dos años anteriores y durante el año en curso.

Declaración jurada suscrita por la persona solicitante de que la entidad no se encuentra sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o no se halla incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias (1).

- |  |  |
|--|--|
| <p><input type="checkbox"/> Jarduera ekonomikoen zergari dagokion epigrafean altan egotearen ziurtagiria.</p> <p><input type="checkbox"/> Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua edo egoitza soziala duenaren ziurtagiria.</p> <p><input type="checkbox"/> Enpresa eskatzailearen memoria eta txostena. Bertan honakoak adierazi beharko dira: ordura arte egindako jarduerak eta beste proiektu batzuk, berehalako etorkizunerako ekoizpen- edo banaketa-planak; horrela, enpresak azken bi urteetan izan duen ibilbide egonkorra egiaztatuko da. Enpresa berria izango balitz, jardueren memoria enpresa eratzen duen zuzendaritza-taldeko kideei buruzkoa izango da; kasu horretan, zenbakitutako jardueren zerrenda, eta aipatutako taldeko kideen enpresa berriko enpleguaren egonkortasun maila kreditatu beharko dira.</p> <p><input type="checkbox"/> Proiektu berarentzat beste laguntza batzuk eskatu edota jaso badira zinpeko aitortpena aurkeztu, baita laguntzen zenbatekoa zehaztu ere.</p> <p><input type="checkbox"/> Ordainketak igortzeko, II. edo III. eranskinak betetzea.</p> <p>2.- Aurten parte hartu edo hartuko duen merkatua(k) markatu:</p> <p><input type="checkbox"/> Festival Internacional de Cine de ....., clasificado como &lt;&lt;A&gt;&gt; por la Federación Internacional de Productores de Películas (FIAPF)</p> <p><input type="checkbox"/> NATPE (AEB).</p> <p><input type="checkbox"/> AFM (AEB).</p> <p><input type="checkbox"/> MIPTV (Frantzia).</p> <p><input type="checkbox"/> MIFA (Frantzia).</p> <p><input type="checkbox"/> Sunny Side of the Doc (Frantzia).</p> <p><input type="checkbox"/> MIPCOM (Frantzia).</p> <p><input type="checkbox"/> MIFED (Italia).</p> <p><input type="checkbox"/> IDFA (Herbehereak).</p> <p><input type="checkbox"/> Cinema Jove Nazioarteko Zinemaldia (Espainia).</p> <p><input type="checkbox"/> Festival Internacional de Cortometrajes de Clermont-Ferrand (Frantzia).</p> <p><input type="checkbox"/> Festival Internacional de animación 3D del Siggraph.</p> | <p><input type="checkbox"/> <i>Acreditación de estar dado de alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas.</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>Acreditación de estar domiciliada en la Comunidad Autónoma del País Vasco.</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>Memoria e informe de la empresa solicitante, con expresión de las actividades realizadas hasta la fecha y otros proyectos, planes de producción o distribución para el futuro inmediato, con objeto de constatar una trayectoria estable de la empresa en los dos últimos años. Si la empresa fuese de nueva creación, esta memoria de actividades se aportará respecto de los miembros del equipo directivo que la constituya, acreditando, en este caso, la relación de las actividades enumeradas y el grado de estabilidad en el empleo de los miembros del citado equipo en la nueva empresa.</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>Declaración jurada si se han solicitado o se han obtenido ayudas para el mismo proyecto y cuantía de las mismas.</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>Para el libramiento de pago: anexo II o III.</i></p> <p>2.- <i>Marcar el/los evento/s en el/los que ha participado o participará este año:</i></p> |
|--|--|

## OHARRA:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritzak ondo-koa adierazi nahi dizu: eranskin honetan jarri dituzun datu pertsonalak, Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikopean dagoen fitxategi automatizatu batean sartuko ditugu, ondoren, erabili ahal izateko.

Fitxategi hori erabili ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko sektorea osatzen duten enpresa eta profesionalen direktorioa argitaratu beharko du, ikus-entzunezko jardueraren nazio eta nazioarteko eremuko jaialdi, merkatu eta foro garrantzitsuenetan hedatzeko.

Aipatutako lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

## NOTA:

*La Dirección de Creación y Difusión Cultural del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este anexo van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.*

*El uso de dicho fichero se circunscribe a la publicación por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco de un directorio de empresas y profesionales que integran el sector audiovisual de la Comunidad Autónoma de Euskadi para su difusión en los festivales, mercados y foros de actividad audiovisual más importantes del ámbito nacional e internacional.*

*Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Promoción de la Cultura, responsable de dicho fichero, c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

.....(e)n, 2008ko .....aren .....(e)(a)n  
En ....., a ..... de ..... de 2008

Sinadura / Firma: (2)

## AURKEZTU BEHARREKO AGIRIEI BURUZKO OHARRAK.

(1) Zergak ordaindu direla frogatzen duen ziurtagiria.

Organo eskudunak eman behar du. Gehienez hiru hilabete igaro ahal izango dira organoak ematen duen egunetik eskabidea aurkeztu arte.

(2) Sinadura:

Eskabide-orria sinatzen duena erakundearen legezko ordezkaria bera izango da.

## NOTAS ACLARATORIAS SOBRE LA DOCUMENTACIÓN A APORTAR.

(1) *La certificación acreditativa de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias.*

*Deberá haber sido emitida por el órgano competente con no más de tres meses de antelación a la fecha de solicitud.*

(2) Firma:

*El firmante de la solicitud habrá de coincidir con quien ostente la representación legal de la entidad.*

## II. ERANSKINA / ANEXO II

HIRUGARRENAREN DATUEN ALTA / ALTA DE DATOS TERCERO INTERESADO (\*)

HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO

IFZ edo NAN / NIF o DNI (1) .....  
 Entitatearen izendapena edo izen-deiturak / Denominación de la entidad o nombre y apellidos:  
 .....

HELBIDERATZE-DATUAK / DATOS DE DOMICILIACIÓN

Helbidea  
 Domicilio: .....  
 Posta Kodea Herria  
 Código Postal:..... Localidad: .....  
 Probintzia  
 Provincia: .....

BANKUAREN DATUAK / DATOS BANCARIOS (3)

Banketxea edo Aurrezki Entitatea  
 Banco o Entidad Bancaria .....   
 Agentzia  
 Agencia .....   
 K.D.  
 D.C. ....   
 Kontu-zk.  
 N.º cuenta .....   
 Jabea  
 Titular .....

Bankuaren adostasuna  
 Conforme banco

Sinadura eta zigilua  
 Sello y firma

Hirugarrenaren adostasuna  
 Conforme tercero

Sinadura eta zigilua  
 Sello y firma

Sailaren onespena  
 V.º B.º departamento

Baimenduriko sinadura  
 Firma autorizada

Kontabilitatearen onespena  
 V.º B.º contabilidad

Baimenduriko sinadura  
 Firma autorizada

(\*) Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzarik inoiz jaso ez dutenek bete beharreko inprimakia / Impreso a rellenar por aquellos peticionarios que no hayan recibido nunca subvención alguna del Gobierno Vasco.

Argibideak/ Observaciones:

(1) Erantsi fitxa honi Identifikazio Fiskalerako Txartelaren fotokopia edo Nortasun Agiri Nazionalarena / Debe adjuntarse fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal o, en su caso, del Documento Nacional de Identidad.

(2) Administrazioak bete beharrekoa / A rellenar por la Administración.

(3) Bankuak edo Aurrezki Entitateak bete beharrekoa / A cumplimentar por el Banco o Entidad de Ahorro.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak jakinarazten dizu, dokumentu/inprimaki/formulario honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Hacienda y Administración Pública, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/impreso/formulario, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante la Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública: calle Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

## III. ERANSKINA / ANEXO III

HIRUGARRENAREN DATUETAN ALDAKETA(K) SARTZEKO ESKABIDE-ORRIA (\*)  
SOLICITUD MODIFICACIÓN EN LOS DATOS DEL TERCERO (\*)

## HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK / DATOS IDENTIFICACIÓN DEL TERCERO

IFZ edo NAN / NIF o DNI .....	3.aren kodigoa / Código del tercero (1):
Entitatearen izendapenaedo izen-deiturak / Denominación de la entidad o nombre y apellidos	

## ALDAKETA/MODIFICACIÓN (2)

## A) HELBIDERATZE-DATUAK / DATOS DE DOMICILIACIÓN

Helbidea	
Domicilio: .....	
Posta Kodea	Herria
Código Postal:.....	Localidad: .....
Probintzia	
Provincia: .....	

## B) BANKUAREN DATUAK / DATOS BANCARIOS (3)

Banketxea edo Aurrezki Entitatea	
Banco o Entidad Bancaria .....	<input type="text"/>
Agentzia	
Agencia .....	<input type="text"/>
K.D.	
D.C. ....	<input type="text"/>
Kontu-zk.	
N.º cuenta .....	<input type="text"/>
Jabea	
Titular .....	

Data/ Fecha

Sinadura/ Firma

(\*) Eusko Jaurlaritzatik inoiz diru-laguntzaren bat jaso badute ere, helbideratze edota banketxeko datuetan aldaketaren bat sartu nahi dutenek bete beharreko inprimakia / Impreso a cumplimentar por aquellos peticionarios que, habiendo recibido alguna subvención del Gobierno Vasco, deseen introducir alguna modificación en los datos de domiciliación y/o en los bancarios.

Argibideak/ Observaciones:

(1) Administrazioak bete beharrekoa / A rellenar por la Administración.

(2) Aldaturiko kontzeptua(k) baino ez da/dira adierazi behar / Tan sólo debe(n) cumplimentarse el/los concepto(s) a modificar

(3) Kasu honetan, honako dokumentazio osagarri hau erantsi beharko zaio eskabide-orriari / En este caso deberá adjuntarse a la solicitud la siguiente documentación:

a) Proposatzen den aldaketarako arrazoia / Razón que motiva el cambio.

b) Ordainketarako jakinarazitako kontu korrontea egon badagoela eta beraren titularra adierazitakoa bera dela ziurtatzen dituen banku edo aurrezki-entitate batek emandako agiria / Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la existencia de cuenta y la titularidad de la misma.

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILEKO EKONOMI KONTROLERAKO BULEGOKO KONTABILITATE ZERBITZUA

SERVICIO DE CONTABILIDAD DE LA OFICINA DE CONTROL ECONÓMICO DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA.